



María Goyri Saria

Master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzearen María Goyri Sariaren VII. Edizioaren —2017/2018 ikasturtea— epaimahaia bildu da, eta aztertu ondoren deialdi honetan Masterrek aurkezturiko 6 lanak.

Erabaki du María Goyri Saria ematea lan honi:

**“NO WOMAN’S LAND: XXI. MENDEKO EUSKAL EMAKUME OLERKARIEN
GATAZKA GUNEEN IRAKURKETA PROPOSAMENA: ZORTZI OLERKARI,
ZORTZI GUDU ZELAI”**

Deialdiaren 3. puntua betetzeko

Epaimahaiak 2019ko martxoaren 1a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza, <https://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/2017-2018-deialdiak> web orrialdean, honako hauen berri emanez: pertsona irabazlearen izen-deiturak, zein masterretakoa den, tutorearen izen-deiturak eta saritutako lanaren edo lanen laburpena.



Maria Goyri Saria

Irabazlea: Ane Miren Villagrán Arrastoa

Masterra: Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia

Tutorea: Maria Jose Olaziregi Alustiza

“No woman’s land: XXI. Mendeko euskal emakume olerkarien gatazka guneen irakurketa proposamena: zortzi olerkari, zortzi gudu zelai”

LABURPENA

“No Woman’s Land”: XXI. mendeko euskal emakume olerkarien gatazka guneen irakurketa proposamena izendatu dugun Master Amaierako Lan honek emakume idazleen olerki lanetan islatutako gudu zelaien azterketa du xede eta horietan diren diskurtsoak errealitate politiko-sozial gatazkatsuarekin duten harremana.

Helburua emakume olerkigileen gatazkaren errepresentazioa izanik, azterketa corpusaren hauturako, lehen-lehenik, gatazka barne hartzen duen eremu semantikoa zehaztu da. Termino horiek abiapuntu izanik, zortzi olerkigilez osaturiko corpusa mugatu da eta haien lanetan azaleratzen diren gudu-zelaiaren irakurketa proposamena egin da. Abiapuntuan, fokua *euskal gatazkaren* izendapenean barnebilduriko gatazka horretan jarri nahi izan bazen ere, ikerketak aurrera egin ahala agerikoa izan da azterketa borroka gune orotara zabaltzeko beharra. Hala, Literatur Kritika Feministaren, Harreraren Teoriaren eta Standpoint Teoriaren ikuspegi eta metodologiak baliaturik, corpuseko olerkiek azaleratutako zortzi gudu-zelaiaren analisia egin da, honela izendatu direnak: “Kartzela”, “Herrigintzaren mina”, “Eritasuna gudu zelai”, “Txorien erreinua”, “Gorputza, gorputza, gorputz odoleztatua”, “Familiaren dekonstrukzioa eta *amerri* zapartatua”, “Paisaia ubelak” eta “Mugaz bestaldea”. Gudu-zelai horien irakurketa proposamena egin da eta horietan ardatzeko gai izan dira presondegia, amatasuna, eromena, gorputza, feminismoa, herrigintza, familia, genero-diskurtsoak, patriarkatua, muga eta hizkuntza gatazka, denak ere gatazkaren eremu semantikoari besarkaturik agertu baitira olerkietan barna. Lanaren akabuan, Jule Goikoetxea idazle eta pentsalaria elkarrizketatu da eta egindako azterketaren ondorioez gogoetatu da berarekin.